



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2020.02.11

Jarduneko Alkatea:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:
Begoña Tolosa Mendia
Nerea Letamendia Belloso
Xabier Balerdi Tolosa
Patxi Amantegi Zubiria
Jose M^a Villanueva Telleria

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko Kontuhartzailea:
Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeiko otsailaren hamaikan, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. 2020ko otsailaren 4ko bilkurako akta onartzea.
2. Onartzea 2020ko egutegiak eta Udalaren barne funtzionamendurako zerbitzu instrukzioak.
3. Onartzea kontuhartzaile eta diruzain lanpostuak betetzeko lehiaketa arruntaren oinarri espezifikokoak.
4. Dekretu hauen berri ematea: 2020ko urtarrilaren 24tik 30era (2020/150-2020/207).

1. 2020KO OTSAILAREN 4KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2020ko otsailaren 4an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. ONARTZEA 2020KO EGUTEGIAK ETA UDALAREN BARNE FUNTZIONAMENDURAKO ZERBITZU INSTRUKZIOAK.

Azken urteotan ematen ari diren hainbat aldaketa direla medio, beharrezkoa ikusi da lan egutegiari buruzko irizpide orokor batzuk idatziz finkatzea eta horien aplikazioa arautzea, Udalaren funtzionamenduari begira, arautegi orokor eta homogeen bat edukitzeko, beti ere zerbitzu bakoitzean langileek eman behar duten zerbitzuaren ezaugarrien barruan.

Horrela, proposamen honen eranskin gisa doan dokumentuaren xedea instrukzio orokor bat egitea da, eta, ondoren, sail bakoitzak dituen ezaugarri berezien arabera, egutegiari



TOLOSAKO
UDALA

dagozkion xehetasunak antolatzea eta finkatzea. Horretaz gain, komenigarria ikusi da urteetan zehar lanaldiari buruz aplikatu diren instrukzioak ere idatziz jartzea, interpretazio askea ekiditeko asmoz.

Hortaz, ebazpen proposamen hau bi zatitan banatuko da:

- Batetik, egutegiei dagozkien instrukzioak eta horien aplikazioa (I. eta II. eranskinak).
- Bestetik, egutegi horietatik eratortzen diren lan orduetako dagokien aplikazioa, interpretazioa eta zenbaketa (III. eranskina).

I.- EGUTEGIAREN ONARPENERAKO INSTRUKZIOAK ETA APLIKAZIO IRIZPIDEAK

Orain arte azaldutakoa kontuan harturik, lehen atal honetan, lan egutegia eta lanaldiari buruzko irizpideak finkatzen dira, oporrak, norbere gaietarako lizentzia zein hirurtekoen egunak disfrutatzeko irizpideak finkatuz.

Era berean, bertan sartu da formazio saioetara joateko arautegia, eta, aldi berean, hainbat irizpide finkatu dira kongresu, ekitaldi, jardunaldi zein elkarretaratze edo senidetze ekitaldietan nola jardun azaltzeko.

Lehen eranskinean, sail bakoitzeko egutegi espezifikoei buruzko ordutegiak finkatzen dira, urtero edo urtean zehar aldatu ahal izango direnak, zerbitzuaren beharrak aldatzen diren heinean.

Bigarren eranskinean, aldiz, ohiko lanalditik kanpokotzat hartuko liratekeen orduen aplikazioa arautzen da, dagokion udal hitzarmenaren testua egutegiekin batera barneratuz.

Azkenik, hirugarren eranskin gisa, langileen presentziaren jarraipena egiteko arauak proposatzen dira, egun aplikatzen ari direnak.

II.- EGUTEGIARI BURUZKO XEDAPENAK

A) Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutua

5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duenak, 37.1 artikuluan m) letran xedaturikoaren arabera, lan egutegiak, lanaldiak, ordutegiak, oporrak eta baimenak, beste batzuen artean, pertsonalaren ordezkariekin negoziatu behar dira. Zentzu horretan, lan egutegiari buruzko irizpide hauek ordezkari sindikalekin tratatu ziren 2020ko urtarrilaren 10eko eta otsailaren 4ko bileretan.

B) Udal hitzarmena

Aurreko puntuan esandakoaren ildotik, udal hitzarmenaren 17. artikulua, lan egutegiaz hitz egiten duenean, adierazten du lan ordutegiaren banaketa langileen ordezkariekin negoziatu eta lotuko dela, beti ere zerbitzuaren beharra bermatuta egon behar duelarik.



TOLOSAKO
UDALA

Tolosako udal langileen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmenak honako hauei buruzko xedapen nagusiak biltzen ditu: lanaldia, atsedetak eta jaiegunak, oporrak, aparteko zerbitzuak, lizentziak eta baimenak, ordutegiak eta egutegiak. Horien barnean, lan egutegia, benetako lana edo egutegiaren lanaldi banaketari buruzko oinarrizko arauak xedatzen ditu.

Hori guztia kontuan hartuta eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENENA.- Tolosako Udaleko barne funtzionamendurako zerbitzu instrukzioa onartzea, ebazpen honen eranskin gisa doana, hau da, egutegi espezifikoaren irizpideak, ez ohiko orduetara buruzko interpretazio eta aplikazioa, eta langileen presentzia kontrolatzeko irizpideak.

BIGARRENA.- Udaleko 2020ko egutegiak onartzea, ebazpen honen eranskin gisa doazena.

UDATEko hainbat langileren eskaerari dagokionez, Tokiko Gobernu Batzarrak ebatziko du komitearekin negoziatu ondoren. Hala ere, Inauterietarako proposatutako ordutegia onartu du Tokiko Gobernu Batzarrak.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau langileen ordezkariari eta Udaleko langile guztiei jakinaraztea eta zerbitzu instrukzioen eta egutegiaren irizpideen kopia bat langileen eskura jartzea (era elektronikoa edo paperean). Horretaz gain, informazioa emango da lan bileretan.

3. ONARTZEA KONTUHARTZAILE ETA DIRUZAIN LANPOSTUAK BETETZEKO LEHIAKETA ARRUNTAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK.

Tolosako Udalak gaikuntza estatala duten bi lanpostu hutsik ditu momentu honetan; alde batetik, 2019ko azaroan kontuhartzaile plaza hutsik geratu zen; eta, bestetik, diruzain lanpostua sortu zenetik, bete gabe dago.

Horrela, legeak ezarritakoaren arabera, lanpostu horiek lehiaketa bidez hornitzen dira urtean bitan (lehiaketa arruntaren zein bateratuaren bidez) eta Foru Aldundiak du horien izapidetza bideratzeko eskuduntza.

Horrela, Aldundiak bidalitako idatziaren arabera, Estatu mailako gaikuntza estatala duten Toki Administrazioeko funtzionarioen lehiaketa arrunta ateratzeko, Udalarari eskatu dio merezimenduak baloratuko dituen oinarriak igortzeko. Udalak, bere aldetik, plaza horien oinarri espezifikoak onartzeko proposamena egin du.



TOLOSAKO
UDALA

Aurrekari horiek ikusirik, legeak emandako eskumenak kontuan hartuz eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Udaleko kontuhartzaile lanpostua betetzeko oinarri espezifikoak gaikuntza estatala duten Toki Administrazioako funtzionarioen lehiaketa arruntaren deialdian parte hartzeko (oinarri horiek eranskin gisa atxikitzen dira).

BIGARRENA.- Onartzea Udaleko diruzain lanpostua betetzeko oinarri espezifikoak, gaikuntza estatala duten Toki Administrazioako funtzionarioen lehiaketa arruntaren deialdian parte hartzeko (oinarri horiek eranskin gisa atxikitzen dira).

HIRUGARRENA.- Oinarriak Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Giza baliabideetako departamentuari.

4. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2020KO URTARRILAREN 24TIK 30ERA (2020/150-2020/207).

Alkatetzak eta zinegotzi delegatuek 2020ko urtarrilaren 24tik 30era bitartean (DK 2020/150-2020/207) egin dituzten dekretu hauen berri eman zaie bertaratutakoei.

Honako hauek dira:

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
150	2020	24/01/2020	IDAZKARITZA	2020ERRE0002 ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA
151	2020	24/01/2020	IDAZKARITZA	P. A. AL OINORDETZA ONARTZEKO PROZEDURA HASTEA
152	2020	24/01/2020	IDAZKARITZA	ZERBITZU KONTRATU TXIKIA: OTXANDIO&TEAM HIRIGINTZA DEPARTAMENTUAREN ANTOLAKUNTZA HOBETZEKO.



TOLOSAKO
UDALA

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
153	2020	24/01/2020	PERTSONALA	I.O.P. (LAN ERRETIROA ESKAERAREN ERANTZUNA)
154	2020	24/01/2020	HIRIGINTZA	EUSKAL HERRIA PLAZA 4 BEHEKO "ASTELEHENA" TABERNAKO DISTRIBUZIOA ALDATZEKO BAIMEN ESKAERAKO ZUZENKETAK EGITEKO ERREKERIMENDUA
155	2020	24/01/2020	HIRIGINTZA	ZERKAUSIA 6KO JABEKIDEEI ERAIKINAREN SEGURTASUNA BERMATZEKO EGIN BEHARREKO LANAK EGITEKO AGINDUA
156	2020	24/01/2020	HIRIGINTZA	ZERKAUSIA KALEA 1 BEHEKO KANPOKO AROTZERIA MARGOTZEKO BAIMEN ESKAERAKO ZUZENKETAK EGITEKO ERREKERIMENDUA
157	2020	24/01/2020	HIRIGINTZA	SAN FRANTZISKO 15-2A ETXEBIZITZA BANANTZEKO LIZENTZIAREN TITULARTASUNA ALDATZEKO
158	2020	24/01/2020	HIRIGINTZA	BELATE 1 BEHEKO LOKALAREN LIZENTZIAREN TITULARTASUNA ALDATZEA
159	2020	24/01/2020	UDALZAINGOA	AUTO ABANDONATU BATEN DEUSEZTATZEA
160	2020	24/01/2020	HIRIGINTZA	RONDILLA 46KO ESTALI GABEKO PATIOAREN GOIKO ZATIAN ESTALTZEA
161	2020	24/01/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	M.S.F-I BALIANITZEKO ETXEBIZITZATZEN KONTRATUA LUZATZEA
162	2020	24/01/2020	PERTSONALA	AULAVIRTUALMUSICA.COM IKASTAROA
163	2020	24/01/2020	PERTSONALA	AULA VIRTUAL MUSICA IKASTAROA (E. O.S.)
164	2020	24/01/2020	PERTSONALA	AULA VIRTUAL MUSICA IKASTAROA (M.R. A.)
165	2020	24/01/2020	PERTSONALA	AULA VIRTUAL MUSICA IKASTAROA (M.R. G.)
166	2020	24/01/2020	PERTSONALA	AULA VIRTUAL MUSICA IKASTAROA (M.M. M.)
167	2020	24/01/2020	PERTSONALA	AULA VIRTUAL MUSICA IKASTAROA (MC. A.B.)
168	2020	27/01/2020	IDAZKARITZA	2020ERRE0004 ESPEDIENTEAA EZEZTEA.
169	2020	27/01/2020	IDAZKARITZA	TRIANGULO PLAZAKO 37(-1) GARAJEA ESKUALDATZEA. I.I.S.
170	2020	27/01/2020	AZOKAK	IV TXOTX SOLIDARIOA EGITEKO BAIMENA EMATEA CASINO ELKARTEARI
171	2020	27/01/2020	IDAZKARITZA	2019ERRE0024 ESPEDIENTEA EZEZTEA.
172	2020	27/01/2020	AZOKAK	BERRIZ PROGRAMA. 2019KO LAUGARREN HIRUHILEKO ZURIKETA. ME.G.G
173	2020	27/01/2020	HIRIGINTZA	KORREO 62-1. ESKUBIA ETXEBIZITZA



TOLOSAKO
UDALA

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
				ERABERRITZEKO OBRA BAIMENA
174	2020	27/01/2020	HIRIGINTZA	LARRAMENDI 11-13KO ERAIKINEKO IGOGAILUA ORDEZKATZEKO LIZENTZIA EMATEA
175	2020	27/01/2020	HIRIGINTZA	ISASTEGI SAGARDOTEGIA SLRI HERRIBIDEA ERABILTZEKO BAIMENA EMATEA
176	2020	27/01/2020	HIRIGINTZA	ANDRE MARIA KALEA 6-2.ESKUBIA ETXEBIZITZA ERABERRITZEKO OBRA BAIMENA
177	2020	27/01/2020	HIRIGINTZA	J. A. Q.RI HERRIBIDEA ERABILTZEKO BAIMENA EMATEA
178	2020	28/01/2020	HIRIGINTZA	GERNIKAKO ARBOLA LORATEGIA 3KO ERAIKINEKO FATXADAN HAINBAT LANAK EGITEKO BAIMENA EMATEA
179	2020	28/01/2020	HIRIGINTZA	SAN FRANTZISKO 32-34-36KO DORRE-GARABI JARTZEKO LIZENTZIAREN TITULARTASUNA ALDATZEA
180	2020	28/01/2020	PERTSONALA	GREBA 2020-01-30
181	2020	28/01/2020	FESTAK	EMENDEK ARRAUN ELKARTEARI 2020KO OTSAILAREN 1ETIK 3RA SAN BLAS AUZOKO JAIK OSPA DITZATEN BAIMENA EMATEA.
182	2020	28/01/2020	HIRIGINTZA	HEZKUNTZAKO UDALALGUNTZA 2019 DIRULAGUNTZETARAKO PROIEKTUEN ONARPENA
183	2020	28/01/2020	IDAZKARITZA	TOLOSAKO LEIDOR ZINEMAN EGITEN DIREN GIZARTE- ETA KULTURA-JARDUERAK ANTOLATZEKO ZERBITZUAREN LIZITAZIOAN KONTRATAZIO-MAHAIAN ALDAKETA ONARTZEA
184	2020	28/01/2020	HIRIGINTZA	"EXPO CARAVANAS TOLOSAK" INDUSTRIA PABILOIA ZABALTZEKO ERREKERIMENDUA BIALTZEA,
185	2020	28/01/2020	IDAZKARITZA	ARRILLAGA PLAZAKO 45(-1) APARKALEKUAREN ERABILERA LAGATZEA
186	2020	28/01/2020	IDAZKARITZA	ARRILLAGA PLAZAKO 22(-1) APARKALEKUAREN ERABILERA LAGATZEA
187	2020	28/01/2020	IDAZKARITZA	ARRILLAGA PLAZAKO 39(-1) APARKALEKUAREN ERABILERA LAGATZEA
188	2020	28/01/2020	IDAZKARITZA	ARRILLAGA PLAZAKO 37(-2) APARKALEKUAREN ERABILERA LAGATZEA



TOLOSAKO
UDALA

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
189	2020	28/01/2020	IDAZKARITZA	ARRILLAGA PLAZAKO 39(-2) APARKALEKUAREN ERABILERA LAGATZEA
190	2020	28/01/2020	PERTSONALA	L. R. IKASTAROA (ESTUDIO BÁSICO DEL RÉGIMEN JURÍDICO DEL ACTO Y PROCEDIMIENTO ADMINISTRATIVO)
191	2020	29/01/2020	HIRIGINTZA	2019KO BARATZE PARKEKO TASEN ALEGAZIOEI ERANTZUNA
192	2020	29/01/2020	HIRIGINTZA	KORREO KALEA 2 ERAIKINEKO TEILATUA KONPONTZEKO OBRA AMAIERAKO DOKUMENTAZIOA ONTZAT EMATEA, OBRA AMAIERA LIKIDATU ETA FIDANTZAK ITZULTZEA
193	2020	29/01/2020	IDAZKARITZA	ALKATEAK TOKIKO GOBERNU BATZARREAN ESKUORDETUTAKO AHALMENAK ABOKATZEA UDAL ERAIKINAK ETA HIRI ALTZARIAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN KONTRATUA ALDATZEKO ETA LUZATZEKO.
194	2020	29/01/2020	IDAZKARITZA	UDAL ERAIKINAK ETA HIRI ALTZARIAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN KONTRATUA ALDATZEA ETA LUZATZEA.
195	2020	29/01/2020	HIRIGINTZA	SAN FRANTZISKO PASEALUEA 13BEHEAN ESKATUTAKO TOLDOAREN ESKAERA UKATZEA
196	2020	29/01/2020	FESTAK	TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA S.L.RI, 2020KO OTSAILAREN 23TIK 25ERA, IÑAUTERIEI BURUZKO IRRATSAIOAK EGIN AHAL IZATEKO SAN FRANTZISKO PASEALEKUAN KOKATZEKO BAIMENA EMATEA.
197	2020	29/01/2020	HIRIGINTZA	ANDRE MARIA KALEA 2-6.ESKUBIA ETXEBIZITZAREN ERREFORMA PARTZIALA EGITEKO OBRA BAIMENA
198	2020	29/01/2020	EUSKERA	ZUBIMUSU IKASTOLAKOAN ARROPA SALMENTARAKO POSTUA IPINI NAHI DUTE OTSAILAREN 8AN.
199	2020	29/01/2020	KONTUHARTZAILZETA	OKERREKO SARRERAK ITZULTZEA
200	2020	29/01/2020	KONTUHARTZAILZETA	ZATIKAPENA ONARTZEA 2019KZZG0057
201	2020	29/01/2020	KONTUHARTZAILZETA	ZATIKAPENA 2019KZZG0057
202	2020	29/01/2020	HIRIGINTZA	KORREO KALEA 62 ERAIKINEKO FATXADAREN KONPONKETAK EGITEKO OBRA BAIMENA
203	2020	29/01/2020	HIRIGINTZA	TOLDOA JARTZEKO BAIMENA GUDARI KALEA 8 BEHEAN



TOLOSAKO
UDALA

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
204	2020	29/01/2020	HIRIGINTZA	LARRAMENDI 8 A BEHEKO LOKALA ETA KALEKO ZORUA IRAGASGAIZEKO LIZENTZIA EMATEA
205	2020	29/01/2020	PERTSONALA	URTARRILEKO NOMINAREN GASTUA ONARTZEA
206	2020	29/01/2020	HIRIGINTZA	ANDIA KALEA 5 BEHEKO LOKALEAN ERROTULOA FATXADARI PERPENDIKULAR JARTZEKO BAIMEN ESKAERA UKATZEA ETA ESKAERA BERRI BAT AURKEZTEKO ERREKERIMENDUA ADIERAZITAKO BALDINTZEKIN
207	2020	30/01/2020	KONTUHARTZAILETZA	2020ZZSI0002 ESPEDIENTEA. DIRU SARRERA ITZULKETA.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:45ean.

ALKATEA

IDAZKARIA



TOLOSAKO
UDALA

ERANSKINA

TOLOSAKO UDALEKO EGUTEGIAK ETA BARNE FUNTZIONAMENDURAKO ZERBITZU INSTRUKZIOA

Azken urteotan ematen ari diren hainbat aldaketa direla medio, beharrezkoa ikusi da lan egutegiari buruzko irizpide orokor batzuk idatziz finkatzea eta horien aplikazioa arautzea, Udalaren funtzionamenduari begira, arautegi orokor eta homogeen bat edukitzeko, beti ere zerbitzu bakoitzean langileek eman behar duten zerbitzuaren ezaugarrien barruan.

Horrela, proposamen honen eranskin gisa doan dokumentuaren xedea instrukzio orokor bat egitea da, eta, ondoren, sail bakoitzak dituen ezaugarri berezien arabera, egutegiari dagozkion xehetasunak antolatzea eta finkatzea. Horretaz gain, komenigarria ikusi da urteetan zehar lanaldiari buruz aplikatu diren instrukzioak ere idatziz jartzea, interpretazio askea ekiditeko asmoz.

Hortaz, ebazpen proposamen hau bi zatitan banatuko da:

- Batetik, egutegiari dagozkien instrukzioak eta horien aplikazioa (I. eta II. eranskinak).
- Bestetik, egutegi horietatik eratortzen diren lan orduetako dagozkien aplikazioa, interpretazioa eta zenbaketa (III. eranskina).

AURREKARIAK

Administrazio publikoek, ordenamendu juridikoak markatzen dituen printzipio eta ahalmenen barnean, dagozkion neurriak hartu ahal izango dituzte interes orokorra eta kalitatezko zerbitzu publiko bat emateko helburuarekin.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 4. artikuluan, Administrazio Publikoari (eta gure kasuan udalari) bere burua antolatzeko ahalmena ematen dio, udalak duen autonomiaren barruan.

Enplegatu publikoen betebeharren artean, udal herritarrak eskatzen dituen zerbitzuak eskaintzea da, beti ere udal eskuduntzen barruan eta udal gobernuak ezarritako udal politiken markoan oinarrituta. Horrela, enplegatu publikoen lan egutegiak eta ordutegiak momentu bakoitzean eman nahi den zerbitzura egokitu beharko dira, eta horiek aldatu ahal izango dira zerbitzu edo behar berriak sortzen direnean, beti ere langileen ordezkariekin negoziatu ostean.



TOLOSAKO
UDALA

Kontuan hartuta egutegia legeak ezartzen duen instrumentu bat dela lanaldiaren banaketa urtean edo astean zehar egiteko eta, bide batez, enplegatu publikoen lanaldia finkatzeko, hauxe da egiten den.

EGUTEGIA ONARTZEKO INSTRUKZIOAK ETA APLIKAZIO IRIZPIDEAK

Egutegiak onartzeko garaian, honako arau orokor hauek aplikatuko dira:

1.- Aplikazioa eremua.

Egutegiaren arau orokorrak aplikagarri izango zaizkie Tolosako Udaleko eta bere sektore publikoko langile guztiei.

2.- Lan egutegiari buruzko arau orokorrak.

Udalaren lan egutegia egingo da udal hitzarmenak xedatzen dituen urteko 1.592 orduak kontuan hartuta, eta lanaldiaren banaketa egunean, astean edo hilabetean desberdina izango da zerbitzu bakoitzaren beharren arabera.

3.- Lanaldi orokorra: iraupena eta lan banaketa.

Zerbitzu bakoitzari aplikagarri zaion egutegiaren arabera, eguneko gutxieneko lanaldia 7,00 ordutan finkatzen da, 5. artikuluan xedaturikoari kalterik egin gabe.

Udal bulegoetan, udal langileen gutxieneko lanaldiaren ordutegia 08:30etik 14:00etara izango da. Arau honetan salbuespen dira honako hauek: txandaka lan egiten duten langileak; beranduago sartzeko edo lehenago ateratzeko aurrez eskatutako eta onartutako baimena eta lizentzia dutenak; ordutegi berezi bat duten zerbitzuak.

4.- Lanaldi bereziak eta ordutegi bereziak.

Udalak, bere eskuduntzen barruan, erabakiko du lanaldi berezia, dedikazio berezia edo prestasuna (disponibilitatea) behar duten zerbitzuen egutegien lan banaketa, UDALHITZ lan hitzarmenak 73., 74., 75. eta 76. artikuluetan xedatutakoaren arabera:

- Lanaldi luzatuko ordutegia: urtean, 1.685 ordu.
- Erabateko edo zatikako prestasuna duen ordutegia, 1.685 ordu.
- Lanaldi luzatuko eta erabateko prestasuna duen lanaldiaren ordutegia: urtean, 1.685 ordu.

5.- Udarako lanaldi jarraitua.

Uztaileko hilabetean, Udalak lanaldi murriztua aplikatuko du egutegietan, beti ere, zerbitzua ez badago taldetan edo txandaka antolatuta eta zerbitzuaren beharrak ahalbidetzen duen heinean.



TOLOSAKO
UDALA

6.- Oporrak, norbere gaietarako lizentzia egunak eta hirurtekoak.

6.1.- Oporrak: 24 lanegun izango dira eta urte bakoitzeko abenduaren 10a baino lehen egin beharko dira. Egun horretarako ez badira egin, galdutzat emango dira. Soilik salbuespenezko kasuetan, langileak idatzia aurkezteko aukera izango du, Giza Baliabideetako Sailean aztertuko dute eta zinegotzi delegatuak ebazpena emango du, baimentzeko edo ukatzeko. Beti ere, oso salbuespenezko kasuetan onartuko dira luzapenak (baja kasuetan, urtean zehar lan kargagatik oporrak hartu ezin izan diren kasuetan...). Opor egun horiek egin ahal izateko luzaturiko epea hurrengo urteko martxoaren 31n amaituko da.

Bestalde, urteko oporrei dagokienez, sail bakoitzak, bere zerbitzuburuaren bitartez, apirilaren 30a baino lehen aurkeztu beharko du opor plangintza Giza Baliabideetako Sailean, eta zerbitzuaren beharren arabera antolatuko dira zerbitzuak, bermatuz, beti, udal langileen presentzia lantokian edo sailean.

6.2.- Udal langileek dagokion urteko egutegia ixten den egunera arte izango dute aukera norbere gaietarako lizentzia egunak eta hirurtekoak hartzeko, udal hitzarmenak markatzen dituen baldintzen arabera, eta ezingo dira inolaz ere hurrengo urtean hartu.

6.3.- Aste Santua eta Eguberrietako asteak: Aste Santuko eta Eguberrietako aste errekuaragariari dagokienez, sail bakoitzak, bere barne antolakuntzaren barruan, Giza Baliabideetako sailean aurkeztu beharko du proposamena, data horiek iritsi baino 15 egun lehenago. Zerbitzuak une oro bermatua egon beharko du aste horietan.

Ezingo dira bi aste desberdinetako egun errekuaragariak jarraian disfrutatu, hau da, ezingo dira bi aste jarraian hartu: ezingo dira Eguberrietako zein Aste Santuko egun horiek hirurteko edo lizentzia egunekin zein oporrekin elkartu. Bi kasu horietan, dagokion organo eskudunak aldaketak baimendu ahal izango ditu, salbuespenezko izaeraz eta zerbitzuaren beharren arabera.

6.4.- Ohiko ordutegitik kanpo egindako orduak —aparteko ordu gisa kontsideratzen ez direnak (lan pilaketagatik, ohiko ordutegitik kanpoko bilerak...)— ordu bakoitzeko ordu eta erdiko konpentsazioa izango dute, beti ere saileko arduradunaren edo/eta zinegotzi delegatuaren eskariz eta haren oniritziarekin. Ordu horien konpentsazioa aplikatu ahal izateko, justifikazio-txosten bat egin beharko du zerbitzuburuak eta saileko zinegotziaren oniritzia beharko du (II. eranskinean doa eredia); behin Giza Baliabideetako Sailak aztertu ondoren, dagokion izaera emango die ordu horiei, beti ere hitzarmenak markatutako 1.592 orduen barruan.

6,5- Urteko orduen zenbaketa eta saldoa: urte amaieran langileek sobera dituzten orduak iraungi egingo dira eta egutegi berria martxan jarriko da. Ildo horretan, langilea sobera dituen orduak murrizten joango da, bestela, urte bukaeran, iraungizat deklaratu dira eta urteko egutegi berriarekin batera, urteko saldoa hutsean hasiko da. Arau hau lan presentzia kontrolatzen duen eranskinean jasoko da.



TOLOSAKO
UDALA

7.- Prestakuntza eta orduen zenbaketa.

Tolosako Udaleko langileek formazio edo prestakuntza-saioetan parte hartzeko araudia ondoren adierazten den moduan aplikatuko da. Araudi honen helburua honako hau izango da: alde batetik, Tolosako Udalak egingo duen Udal Prestakuntza Planaren lanketan, garapenean eta jarraipenean sartzen diren alderdi guztiak arautzea, eta, bestetik, udal enplegatuen asistentzia arautzea ikastaro, jardunaldi, hitzaldi, eta antzekoetan, beren lanpostuetarako prestakuntza indibidualizatua dakarten kasuetan.

Horrela, udal langileei aplikagarri izango zaie 2019ko maiatzaren 9an onartutako araudia (2019/759 Alkatetza Ebazpena), prestakuntza-saioetara joateko eta horren kudeaketa eta orduen zenbaketa egiteko. Hona hemen araudi honen xehetasunak:

7.1. - Ikastaroak onartzeko prozedura.

a) Urtea amaitu aurretik (abenduan), udal langileek, saileko arduradun eta zerbitzuburuak Giza Baliabideetako Sailari jakinaraziko dizkiote sailek prestakuntza edo formazio aldetik dituzten beharrak. Behar horiek justifikatuko egin beharko dira lanpostu bakoitzaren arabera.

b) Urtarrilaren hasieran, Giza Baliabideetako Sailak prestakuntza eskaintza posta elektronikoz jakinaraziko die zerbitzuburuari eta udal langileei, sail bakoitzaren intereseko prestakuntza saioen arabera, proposamenak egin ditzaten.

c) Otsailean, aurkezturiko eskaerak aztertu ondoren, sail bakoitzeko arduradunaren oniritziarekin, Giza Baliabideetako zinegotzi delegatuak urteko prestakuntza plana onartuko du, ikastaro bakoitzaren egokitasunaren arabera eta zerbitzuaren beharrak kontuan hartuta.

Giza Baliabideetako Sailak onarpena eman ondoren, formazioa egiteko eskaera-eredua bete beharko da, eta, ondoren, Sail horrek eskaera izapidetuko du dagokion erakundearekin (IVAP, EVETU, HABE...) eta zinegotzi delegatuak ebazpen bidez onartuko du.

Orokorrean, udal langile bakoitzak gehienez ere bi ikastaro (edozein modalitatetan, presentziala edo on-line bidezkoa) egin ahal izango ditu urtean. Hemendik kanpo geratuko dira jardunaldiak edo arau berrien ondorioz sortzen diren jardunaldiak, esate baterako. Dena den, salbuespenez, zinegotzi delegatuak ikastaro gehiago baimendu ahal izango ditu zerbitzuaren beharrak hala eskatzen duenean.

Udalak ordainduko ditu atal honetan xedaturiko eran onarturiko ikastaroen matrikulazio gastuak.



TOLOSAKO
UDALA

7. 2.- Ikastaroak sorturiko indemnizazioen ordainketa.

Ikastarora joateagatikoko gastuak otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan xedaturikoak izango dira eta bidaia gastuen orri ereduak betez justifikatu beharko dira.

7.3.- Prestakuntzako orduen zenbaketa.

Prestakuntza ikastaroetako orduak lanordutzat hartuko ditu Udalak; horretarako, eskaerekin batera, formazioko programa, ordutegia eta, ahal den neurrian, edukia erantsi beharko da. *Informazio hori, kasu gehienetan, Giza Baliabideetako Sailak edukiko du, 7.1 atalean araututakoaren arabera. Honek salbuespenezkoa izan beharko luke. 8. ataleko araudia aplikatu nahi bada, hemen xedatu behar da.*

Prestakuntzarako egiten diren joan-etorriak ere lan ordutzat hartuko dira, behar den denbora zenbatuko delarik, eta gehienez ere 3 orduko muga izango dute Euskal Autonomia Erkidegoan badira.

Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egiten diren prestakuntza saio, jardunaldi eta antzekoen inguruan, interesatuak 15 egun aurretik jakinaraziko dizkio Giza Baliabideetako Sailari saio horien xehetasunak, eta zinegotzi delegatuaren ebazpen bidez jakinaraziko da formazio horien orduen zenbatekoa, beti ere prestakuntza izan aurretik.

EAetik kanpo egiten den formazio saioen kasuetan ere bidaiaren joan-etorrian pasatako denbora lan ordutzat hartuko da, eta beti ere 10 orduko muga izango du guztira. Kasu horretan ere, zerbitzuburuaren edo/eta zinegotzi delegatuaren baimena beharko du.

Salbuespen kasuetan, udal langileak proposatzen duen formazioa bere lanpostuarekin zuzenean loturik ez badago, hura egiteko aukera izango du honako baldintza honekin: matrikularen kostua ordaindu egingo zaio eta lan orduak errekuperatu egin beharko ditu.

8.- Kongresu, ekitaldi, jardunaldi, elkarretaratze, senidetze eta antzeko ekitaldien ordu zenbaketa.

Arestian aipatu bezala, araudi honen helburua da, alde batetik, Tolosako Udalak egingo duen Udal Prestakuntza Planaren lanketan, garapenean eta jarraipenean sartzan diren alderdi guztiak arautzea, eta bestetik, udal enplegatuen asistentzia arautzea ikastaro, jardunaldi, hitzaldi, eta antzekoetan, beren lanposturako prestakuntza indibidualizatua dakarten kasuetan.

Edozein kongresu, hitzaldi, jardunaldi, elkarretaratze edo antzeko ekitaldietara joateko baimena ematen denean, bidaiaren denbora (joan-etorriak) lan ordutzat hartuko da eta beti ere 3 orduko muga izango du guztira EAEn bada (2019/759 Alkatetza-Ebazpena).



TOLOSAKO
UDALA

Arau berbera aplikatuko da EAetik kanpo egiten den edozein kongresu, hitzaldi, jardunaldi, elkarretaratze edo antzeko ekitaldietan ere: joan-etorrian pasatako denbora lan ordutzat hartuko da, eta beti ere 10 orduko muga izango du guztira. Era berean, puntu honetan emandako lan denbora, honela zenbatuko da:

- Astelehenetik ostiralera, eguneko ohiko lanaldi baten moduan konputatuko da gehienez ere, inolako konpentsazio berezirik gabe.
- Igande edo jaiegunetan, ondoko konpentsazio hau aplikatuko da, eta eguneko ohiko lanaldi baten moduan konputatuko da gehienez ere, eta ordubete bakoitzagatik, ordu eta erdiko konpentsazioa izango dute.

Dena den, goiko puntuan adierazitako kasuan, 15 egun lehenago aurkeztu beharko da eskaera, idatziz, Giza Baliabideetako Sailean, zerbitzuko arduradunaren oniritziarekin.

9. Lanaldi luzatuaren modalitatea (Udalhitz, 74 artikulua).

Hauxe dakar berarekin modalitate honek :

- 1.- Lanaldi luzatua izeneko modalitatea erabilia, urtean benetan egindako 93 lan-ordu gehiago ordaintzen dira. Ordu horiek lanaldi zatituan edo txandaka egin daitezke; nolana ere, larunbatetan eta jaiegunetan ere egin daitezke, baldin eta erakundeak (Udalak) bere Lanpostuen Zerrendan horrela zehazten badu, irizpide murriztaile eta singularitasunezkoarekin, langileen ordezkariekin negoziatu eta gero.
2. Lanaldi luzatua duten lanpostuek kopuru hau jasoko dute gehienez kontzeptu horrengatik: soldata, destino-osagarria eta osagarri espezifikoa –tarte orokorreko lanpostuari ezin zaio kontsolidatu– batuta ateratzen den zenbatekoaren % 10.

10. Erabateko prestasunaren (disponibilitatea) modalitatea (Udalhitz, 75. artikulua).

1. Erabateko prestasunaren modalitateak ondorio hauek ditu:
 - a) Ezin da irabazizko beste jarduerarik egin eremu publikoan zein pribatuan.
 - b) Lanpostu baten titularrak prestasun osoa izan behar du bere lanpostuari dagozkion funtzioak egiteko bere lanalditik kanpoko orduetan, ordutegi malguarekin; hori horrela, bere lanpostuan agertu beharko du zerbitzuaren beharrengatik edo larrialdi batean, hala eskatzen diotenean. Horren barruan sartzen dira desplazamenduak eta antzeko beste eskakizun batzuk.
 - c) Modalitate honetan, eskubidea galtzen da ohiko lanalditik kanpo egindako aparteko orduengatik ematen den konpentsazio ekonomikoa edo atsedenaldia jasotzeko.



TOLOSAKO
UDALA

- d) Zerbitzuaren arrazoiengatik dedikazio hori beharrezkoa ez bada, ez du ondorio ekonomiko negatiborik izango.
- e) Erakundeak (Udalak) aukera izango du lanpostuaren egutegia eta ordutegia aldatzeko, zerbitzuaren beharren arabera, baina, horretarako, aurrez abisatu egin behar du gutxieneko denbora baten barruan.

2. Erabateko prestasuna duten lanpostuek kopuru hau jasoko dute gehienez kontzeptu horrengatik: soldata, destino-osagarria eta tarte orokorreko osagarri espezifikoa batuta ateratzen den zenbatekoaren % 20.”

11. Lanaldi luzatuaren modalitatea, erabateko prestasunarekin (Udalhitz, 76. artikulua).

- 1. Modalitate honetan, bi kontzeptu horiek ordaintzen dira, hau da, lanaldi luzatua eta erabateko prestasuna, beren eskakizun eta inplikazio guztiekin.
- 2. Erabateko prestasuna duen lanaldi luzatuko lanpostuetan kopuru hau jasoko dute gehienez kontzeptu horrengatik: soldata, destino-osagarria eta tarte orokorreko osagarri espezifikoa batuta ateratzen den zenbatekoaren % 25.

Lehen azken xedapena.- Arautegi honetan ezartzen diren irizpideak ezin badira aplikatu zerbitzu beharrak direla medio edo langileen eskaera/egoera berezi bat dela medio, Giza Baliabideetako Sailean aztertuko da eta zinegotzi delegatuaren ebazpen bidez erabakiko da.

Bigarren azken xedapena.- Musika Eskolak, Euskaltegiak, Brigadak, Udaltzaingoak, atezainek eta txandakako zein taldekako lana egiten duten kolektiboek bere arautegi eta egutegi propioa izango dituzte eta orain arte aipaturiko araudia aplikatuko zaie, beti ere zerbitzuaren beharrak posible egiten duten heinean.

Xedapen iragankorra: Harik eta Udalbatzak martxan dagoen lanpostuen balorazioa onartu arte, aparteko ordu kontsideratu ez baina ohiko edo adostutako ordutegitik kanpo egindako orduak (lan pilaketagatik, ohiko ordutegitik kanpoko bilerak...) ordu bakoitzeko ordu eta erdiko konpentsazioa izango dute, beti ere saileko arduradunaren edo/eta zinegotzi delegatuaren eskariz eta haren oniritziarekin. Esan bezala, neurri hau indarrean egongo da harik eta 2020ko urtean egiten ari den lanpostuen balorazio prozesua Udalbatzak onartu eta amaitu arte.



TOLOSAKO
UDALA

I. ERANSKINA

EGUTEGI ESPEZIFIKOARI DAGOZKION IRIZPIDEAK

Barne araudiaren 4. puntuak dioen moduan, "Udalak, bere eskuduntzen barruan, erabakiko du lanaldi berezia, dedikazio berezia, edo prestasuna (disponibilitatea) behar duten zerbitzuen egutegien lan banaketa, UDALHITZ lan hitzarmenak 73., 74, 75. eta 76. artikuluetan xedatutakoaren arabera". Horrela, dagokion sailaren urteko lanaldiaren egutegia egokituko da eman behar dituen zerbitzuen arabera eta ordezkari sindikalekin negoziatu ondoren.

1.- Bulegoetako egutegi eta ordutegi orokorrak.

Irizpide nagusiak:

- Asteko lanaldia astelehenetik ostiralera finkatuko da.
- Lanera sartzeko malgutasuna egongo da, 07:00etatik 08:30era bitartean. Ordu horretatik aurrera lanera sartzeko, baimena izan beharko du langileak. Horretarako, eskaera arrazoitua aurkeztu beharko du Giza Baliabideetako Sailean, zerbitzuko arduradunaren oniritziarekin, eta Giza Baliabideetako zinegotzi delegatuak erabakiko du.

2.- UDATEko egutegia eta ordutegia.

- UDATEko ordutegia hau izango da: 07:15etik 14:15era astelehenean, asteartean, asteazkenean eta ostiralean, eta ostegunean, berriz, 07:15etik 19:00etara.

3.- Merkataritza, Azoka eta Turismoko Azpisailaren egutegia eta ordutegia.

- Langileen egutegia urtez urte erabakiko da, urteko feria eta gainontzeko ekitaldiak kontuan hartuta, zerbitzuak bermatzearen. Hala ere, bulegoko gutxieneko ordutegia, 3. artikuluan xedaturikoa, bete beharko dute.

4.- Kultura, Gaztedi eta Festetako Sailaren egutegia eta ordutegia.

- Bulegoko ohiko ordutegia 16:30 arte izango da, eta arautegi orokorra aplikatuko zaio.
- Ordutegi malgua duten langileen kasuan: 5 orduko derrigorrezko presentzia izango dute, zerbitzuburuarekin eta zerbitzu beharren arabera adostua izango dena.

5.- Liburutegiko egutegia eta ordutegia.

- Lanaldi jarraitua edo zatikatua izango dute, liburutegiko zerbitzuak ezarritako ordutegiaren arabera. Liburutegiaren jendaurreko ordutegia hauxe izango da: 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

6.- Brigadaren egutegia eta ordutegia.

- Egutegia astelehenetik ostiralera izango da, 07:00etatik 14.00etara edo 07:30etik 14:30era, eta Udalak dituen ekintzen egutegiaren arabera. Jarduerak dauden asteburuetan



TOLOSAKO
UDALA

ere lan egingo dute, urtero zehaztutako egutegiaren arabera, sail guztien ekintzak koordinatu ondoren.

7.- Kiroletako egutegia.

- Usabalgo kirol instalazioan dagoen ordutegiaren eta ekintzen arabera antolatuko da egutegia.

8.- Samaniegoko eta Gorosabelgo atezainen egutegia.

- Samaniego ikastetxeak emandako ikasturteko egutegi lektiboaren arabera egokituko da atezainen egutegia. Ordutegia 07:30etik 15:15era izango da bata, eta, bestea, 08:00etatik 12:30era eta 15:15etik 18:30era.

- Musika Eskolak edo Euskaltegiak ikasturteko egutegi lektiboa kontuan hartuta, Gorosabelgo atezainaren ordutegia 14:45etik 22:00etara izango da.

9.- Udaltzaingoaren egutegia.

Zerbitzu hau hiru txandatan eta 24 orduko zerbitzua izanik, bere araudi espezifiko propioa izango du eta bi urtetarako egutegi bat onartuko da.

10.- Euskaltegiko egutegia.

Aitzol Udal Euskaltegiak dituen matrikulazio ikasleen arabera eta udal hitzarmenak ezarritako egutegiaren araudia errespetatuaz, ikasturtero onartuko dira beren egutegiak, beti ere, zerbitzuaren beharren arabera.

11.- Musika Eskolako egutegia.

Musika Eskolak dituen matrikulazio ikasleen arabera eta udal hitzarmenak ezarritako egutegiaren araudia errespetatuaz, ikasturtero onartuko dira beren egutegiak, beti ere, zerbitzuaren beharren arabera.



TOLOSAKO
UDALA

2. ERANSKINA

UDAL HITZARMENAREN EZ-OHIKO ORDUEN 39. ARTIKULUARI BURUZKO INTERPRETAZIOA ETA APLIKAZIOA

Udal hitzarmenak 39. artikuluan aurreikusitako ohiko lanalditik kanpoko orduen erregulazioa oinarritzat hartuta, honako hau xedatzen da:

1) Aparteko ordutzat hartzen da ezinbestean lan egiten den denbora guztia (ordua eta ordu-zatia), alegia, zerbitzuan ezustekoak edo etenak gertatu direlako (langileren bat bertaratu ez delako, esaterako...) edo bestelako ezinbesteko eta azken orduko ezusteko gorabehera batzuk tarteko egindako lana, aurretik nahiko denboraz antolatu ezin izan denean edo zeregin bat premiaz bete behar denean, beti ere araudi honetan xedaturikoa kontuan hartuz.

2) Ohiko lanalditik kanpo egindako orduak ez dira ordainduko, baizik eta denboran konpentsatuko dira, indarrean dagoen lan hitzarmenaren 39.9 artikuluan xedatutakoaren arabera.

3) Benetan lan egindako denborari eta, hala badagokio, joan-etorriak egiteko bidaia-denboraren baturari lanaldi teorikoa kendu, eta hortik ateratzen diren soberako orduak kontatuko dira.

SOBERAKO ORDUAK = (BENETAN LAN EGINDAKO DENBORA +
BIDAIA DENBORA) - LANALDI TEORIKOA

4) Behar bezala justifikatzen ez direnean edo aurrez adierazitakoari ongi egokitzen ez zaizkionean, ordu horiei araudi honen 6.4. puntuan xedatutakoa aplikatuko zaio, edo lanaldiaren luzapentzat hartuko dira eta baliozkoak izango dira ordutegiaren saldoa konpentsatzeko.

5) Aipaturiko ordu horien konpentsazioa aplikatu ahal izateko, justifikazio-txosten bat egin beharko du zerbitzuburuak eta saileko zinegotziaren oniritzia beharko du (II. eranskinean doa eredu); behin Giza Baliabideetako Sailak aztertu ondoren, dagokion izaera emango die ordu horiei.



TOLOSAKO
UDALA

6) Ohiko lanalditik kanpo egiten diren ordu horiek konpentsatu baino lehen, arestian adierazitako txostenaren bidez zuritu beharko dira, benetan lan egindako denbora islatuz, lanaldia zertan izan den eta horren zergatia zehaztuaz, eta lantokitik edo etxetik behar izan duen desplazamendu denbora adieraziz, beti ere denbora hori egunerokoan bere lantokira joateko behar duena baino luzeagoa bada.

7) Aparteko orduen konpentsazioa honela aplikatuko da:

- Laneguneko aparteko ordu normal bakoitzagatik: 2 ordu.
- Jaiegun edo gaueko (22:00etatik aurrera) aparteko ordu bakoitzagatik, 2 ordu eta erdi.
- Jaiegun eta gaueko aparteko ordu bakoitzagatik: 3 ordu.

8) Ez dute konpentsaziorik izango aparteko lanordu gisa langileak egindako prestakuntza edo hobekuntza ikastaro, hitzaldi, biltzar, kongresu, elkarretaratze eta antzekoetan. Kasu horietan, Barne araudiaren 7. eta 8. puntuetan xedatutakoari jarraituko zaio.

9) Udalhitz lan hitzarmeneko 74., 75. eta 76. artikuluetan zehaztutakoaren arabera, ez dute aparteko orduengatik konpentsaziorik izango erabateko prestasunaren kasuagatik zein lanaldi luzatuko modalitatearen kasuagatik ehunekoren bat jasotzen duten langileek.

10) Barne araudiaren 4. puntuak dioen moduan, "Udalak, bere eskuduntzen barruan, erabakiko du lanaldi berezia, dedikazio berezia, edo prestasuna behar duten zerbitzuen egutegien lan banaketa, UDALHITZ lan hitzarmenak 73., 74., 75. eta 76. artikuluetan xedatutakoaren arabera". Horrela, bere lan jarduna egoera horiei egokitua izango da, dagokion sailaren urteko ekintzen egutegien arabera.

Beraz, bere lan jarduna egoera horiei egokitua duten langileek ez dute konpentsaziorik izango eta sartutako ordu bakoitzagatik ordu bat zenbatuko zaio.

11) Sartutako aparteko orduak langileak berak aukeratzen duenean hartuko ditu, orduka edo lanaldi osoa hartzeko aukera izanik, baina, beti ere, zerbitzuaren premia edo beharren arabera. Ordu horiek sartu eta ondorengo hiru hilabeteetan kitatu beharko dira.



TOLOSAKO
UDALA

EZ OHIKO/APARTEKO ORDUAK ONARTZEKO MEMORIA

1. ESKATZAILEAREN DATUAK:

IZEN-ABIZENAK:

SAILA:

2. EZ OHIKO/APARTEKO ORDUEN BEHARREN JUSTIFIKAZIOA:

Azaldu hemen zergatik diren lan horiek atzeratu ezinak:

(1) Zure buruak agindutako lanak dira? BAI ___ EZ ___

Data	Benetako lan denbora orduak (2)	Bidaiarako orduak, hala badagokio (3)	Oharrak	Sobera egindako orduak (4)	Aplikatzeko koefizientea	Konpentsatze ko orduak

Eskatzailearen sinadura	Zerbitzuburuaren/ zinegotzi delegatuaren oniritzia	GGBBetako arduradunaren/zinegotziaren oniritzia
Data:	Data:	Data:

(1) Dagokion zerbitzuburuak/zinegotzi delegatuak bete beharrekoa.

(2) Zehaztu behar da zein orduatik zein ordutara lan egin den.

(3) Zehaztu behar da zein orduatik zein ordutara bidaiatu den.

(4) Alde itzalduna Giza Baliabideetako Sailak beteko du.



TOLOSAKO
UDALA

III. ERANSKINA

LANGILEEN PRESENTZIA KONTROLATZEKO ARAUTEGIA

Tolosako Udaleko lan hitzarmenak udal langileen lan baldintzen oinarritzko araudia erregulatzen du; oro har, lanaldi, atsedernaldi, jaiegun eta opor, aparteko zerbitzu, lizentzia eta baimen, ordutegi eta egutegiei buruzko xedapenak aurreikusten ditu.

Dena den, xedapen horiek osatzeko eta argitzeko helburuarekin, beharrezkoa ikusi da langileek benetan betetzen duten ordutegiaren kontrola arautuko duen arautegi espezifiko egitea, kasu bakoitzean eta sortzen diren gorabeheren arabera jarraitu beharreko pausoak argitzeko asmoz; hau da, lanorduen kontrola lantokietan dagoen kontrol sistemen bitartez egiten bada ere, hainbat alderdi zehaztu eta garatzeko beharra sumatu da, guztiek irizpide garbiak izateko helburuarekin.

Horregatik, Udalak, bere barne antolaketarako, beharrezkoa ikusi du gutxieneko arau batzuk izatea, eta arautegi honetan azalduko da langileek kontrol sistema nola bete behar duten eta kontrol sistemak ze jardunbide jarraitu behar duen.

1. artikulua. Aplikazio eremua.

Arau hauek Tolosako Udaletxeko langile guztiei izango zaizkie aplikagarri. Arau orokor gisa, udal langile guztiek obligazioa dute bere lantokietan ezarritako terminaletan sartu-irteerak fitxatzeko. Lanorduen kontrolerako sistema mekanizatua ez duten lantokietako langileek Udalak esandako moduan fitxatu beharko dute.

2. artikulua. Kontrola gauzatzea.

Langile guztiek izango dute beren identifikazio txartela eta horren bitartez gauzatuko da kontrolerako ezarritako sistema mekanizatua.

Giza Baliabideetako Sailari dagokio identifikazio txartelak egitea, interesdunari ematea, hark itzultzen dionean jasotzea eta txartelari dagokion beste edozein gorabehera.

Identifikazio txartela pertsonala eta besterenezina da. Debekatuta dago beste langileen txartelarekin markaketak egitea. Langileak bere txartela Giza Baliabideetako Sailean entregatu beharko du, Tolosako Udalarekin bere lan harremana amaitzen duenean.



TOLOSAKO
UDALA

Langile orok, Udalak duen aplikazioaren bidez, esleituta izango ditu bere urteko lan egutegia eta hari dagozkion eguneko ordutegia, oporrak zein lizentzia egunak.

Langileak behartuta daude fitxatzera eta behar diren gorabeherak azaltzera beren ohiko lantokian sartzan diren edo handik irteten diren bakoitzean, arrazoia edozein dela ere, bai lanegunaren hasieran edo bukaeran, bai egunean zehar egiten dituen sartu-irteeretan.

Lanegunaren hasiera-bukaerarekin bat ez datozen sartu-irteerak dagokion kodearekin fitxatu beharko dira eta, gainera, behar bezala zuritu eta egiaztatu beharko dira. Kode hori gorabeheraren hasieran eta bukaeran tekleatu beharko da eta, ondoren, aplikazioaren bidez islatu, langileak eta bere zerbitzuburuak oniritzia emanaz.

Behar bezala kodifikatu ez den irteera oro «justifikatu gabeko absentsia» gisa hartuko da hasiera batean. Ondoren, Giza Baliabideetako Sailean dokumentazio egokia aurkezten bada (araudi honetako 6., 7. eta 8. artikulua) absentsia hori zuzendu egingo da.

Ez da konputatuko, ordutegi-malgutasuna dela eta, ezarritako sarrera ordua baino lehenago fitxatzeagatik egiten den denbora.

Ordu gehiago lan egiten bada (ordu gehiegia), ordu horiek ezingo dira metatu ondoren jaiegunetan konpentsatzeko helburuarekin.

Ohiko lanalditik kanpo egindako orduak, aparteko izaera dutenak, nagusiaren berehalako agindua beharko dute beti eta horien izaera Giza Baliabideetako Sailak aztertuko du eta, hala badagokio, oniritzia emango du.

Langileak ez badu fitxatu, edozein arrazoi dela medio, gorabeheren parte bat beteko du. Bertan, lanaldiaren data, hasiera-ordua eta amaiera-ordua zehaztuko ditu. Gainera, ez fitxatu izanaren arrazoia adierazi beharko du. Parte hori aparteko eta ohikoak ez diren baldintzetan bakarrik onartuko da.

Txartela galdu edo hondatzen bada, langileak Giza Baliabideetako Sailari jakinaraziko dio ahalik eta epe laburrenean, txartel berri baten eskaera izapidetzeko asmoz.

3. artikulua. Prozesua izapidetzea.

Langile bakoitzak kontsultatu ahal izango du kontrolerako presentziari dagokion informazioa, alegia, fitxatzeko mugimenduen erregistro indibiduala (markaketak), Udalak duen aplikazio informatikoaren bidez.

Giza Baliabideetako Sailak aipatutako zuriketak baliozkotu egingo ditu, baldin eta justifikatuta badaude eta zerbitzuburuaren oniritzia badute, eta, kasuan kasu, sisteman sartuko ditu, datu horiek behin betiko bihurtuz.



TOLOSAKO
UDALA

4. artikulua. Gorabeherak.

Gorabeherak honako hauek izango dira:

- Langile bakoitzak ezarrita duen ohiko lanaldiko sarrera-irteerei dagozkien fitxaketa guztiak ez egitea.
- Sarrera-irteerei dagozkien derrigorrezko fitxaketak ez egitea.
- Berandu sartzea, goizegi irtetea eta zuritu gabeko ordutegia.
- Lanera ez agertzea, edo egun batean nahiz gehiagotan egin beharreko fitxaketarik ez egitea.
- Oro har, era batera edo bestera gutxieneko lan ordutegia ez betetzea, egin beharreko fitxaketetan agertu nahiz ez agertu.

Dena den, gorabeherak zuritu beharko dira, dagokion frogagiria aurkeztuaz eta zerbitzuburuaren eta Giza Baliabideetako Sailaren oniritziarekin.

5. artikulua. Laneko eginkizunetarako irteerak.

Langileak bere lan eginkizunetarako lantokitik irten behar izanez gero, zerbitzuburuaren oniritzia beharko du eta dagokion intzidentzia markatuko du fitxatzeko sistema mekanizatuan. Dena den, arau hau garatzeko, lanarengatik maiz atera behar duten langileen kasuan, sartu-irteerak ez fitxatzeko zerrenda egin eta ebatziko du.

6. artikulua. Lizentziez eta baimenez gozatzea.

Lizentziak eta baimenak eskatu eta hartzeko garaian, Udalaren barne araudiaren eta lan hitzarmenean ezarritakoaren arabera jokatu da, eta zerbitzuburuaren oniritzia beharko da.

Lizentziak eta baimenak (baita sindikatuetakoa gaiak direnean ere) Giza Baliabideetako Sailean eskatuko dira gutxienez bi eguneko aurrerapenarekin, zerbitzuaren antolaketa bat beharrezkoa den kasuetan, salbu eta hori ez egiteko arrazoi justifikatua dagoenean. Ahal denean, eskaerarekin batera lizentzia arrazoitzen duen gertaera zurtzen duten agiriak ere aurkeztuko dira aplikazio informatikoaren bidez. Eskaera horiek ez betetzeak lizentzia edo baimena ukatzea eragin dezake.

Zuritzeko agiriak lizentziaz edo baimenaz gozatu aurretik aurkeztea ezinezkoa izanez gero, (karneta, pasaportea, mediku-kontsulta, ikastaroak eta abar), agiri horiek Giza Baliabideetako Sailean aurkeztu beharko dira lizentziaz edo baimenaz gozatu eta gehienez ere bi eguneko epean, dagokion intzidentzia aplikazio informatikoan sartuaz.



TOLOSAKO
UDALA

Lizentziek eta baimenek eskubidea ematen dute lizentziaren edo baimenaren xedea betetzeko beharrezkoa den denbora erabiltzeko, ez bestetarako. Lizentziaren xedea bete ondoren, Udaletxera itzuli beharko da.

7. artikulua. Lanera ez agertzea.

Lanera ez agertzeko eskatutako baimena edota lizentzia denean, ebazteko behar adinako denbora emanaz eskatuko da.

Lizentzia edo baimena aurrez eskatu ez denean, ahal bezain laster, eta ahal dela egun berean, langileak bere zerbitzuburuari jakinaraziko dio. Ondoren, lanera itzultzen den egunean, langileak lizentzia eskaera bete beharko du, hala badagokio, eta bertan adieraziko du zenbat egun hartu dituen eta horien arrazoiak, eta dagokion frogagiria erantsiko du.

Lanera ez agertzearen arrazoiak gaixotasuna denean, lehenbailehen jakinaraziko zaio Giza Baliabideetako Sailari, eta egunean bertan edo hurrengo egunean egiaztatu beharko da Giza Baliabideetako Sailean aurkeztuko diren frogagirien bidez. Ondoren, berresteko baja agiriak 2 eguneko epean aurkeztu beharko dira, haiek jasotzen direnetik.

8. artikulua. Lanaldia ez betetzeagatik orduen deskontua, errekupeazioa eta orduen saldoa.

Puntualtasun ezagatik edo urteko lanordu gutxiegi egiteagatik lanaldia betetzen ez bada, deskontuak egin ahal izango dira, ondoren zehazten den moduan:

- Langileak puntualtasunik ez badu edo bere egutegiak ezarritako ordutegia betetzen ez badu, ordu horiek hurrengo hiru hilabetean errekupeatu beharko ditu; hala egin ezean, hurrengo hileko nominan dagokion kitapena egingo da.
- Aldiz, kontrol sistemak hileko lanorduen emaitza positiboa ematen badu, langileak ez du horregatik inolako ordainik jasoko eta ordu horiek hurrengo sei hilabetetan zehar murrizten joan beharko du, beti ere urteko egutegia amaitzen den egunaren mugarekin.

9. artikulua. Diziiplina neurriak.

Indarrean dagoen legeriak jasotzen duen bezala, hutsegite larria izango da lanorduen kontrol sistemai ihes egiteko asmoz edo bidezko arrazoirik gabe lanorduak ez direla bete ezkutatzeko asmoz egiten den eta egiten ez den edozein ekintza.

Hutsegite larriak dira, era berean, urtea amaitzean, egin gabeko ordu kopurua, pilatuta, 10 ordukoa edo hortik gorakoa izatea, eta lanaldiaren barruan lanpostuan ez egotea, bata zein bestea bidezko arrazoirik gabe eginak direnean.



TOLOSAKO
UDALA

Lan ordutegia bidezko arrazoirik gabe ez betetzea hutsegite arina da, larria ez denean.

Dena den, edozein neurri hartu aurretik, udal langileari 10 lanegunetako epea emango zaio alegazioak egin ahal izateko,

XEDAPEN GEHIGARRIA

Giza Baliabideetako Sailari ahalmena ematen zaio lanorduen kontrolerako arautegi honi dagozkion irizpideak garatzeko eta bateratzeko. Giza Baliabideetako Sailak gainbegiratuko du behar bezala aplikatzen dela indarrean dagoen araudia lizentziak ematerakoan eta baimenez gozatzerakoan.

AMAIERAKO XEDAPENA

Araudi hau indarrean sartuko da, dagokion organo eskudunak onartu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.



TOLOSAKO
UDALA

ERANSKINAK

UDALEKO KONTUHARTZAILE LANPOSTUA BETETZEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

2020ko lehiaketa arruntaren oinarri espezifikoak:

Toki entitatea: TOLOSAKO UDALA
Aurreko urteko abenduaren 31n zenbatekoa zen biztanleria, 2.000 biztanle baino gehiagokoa ala gutxiagokoa? Gehiagokoa.
Lanpostuaren izena (1): Kontuhartzailea.
Kodea: 2.101
Lanpostuaren azpieskala eta kategoria (2): Kontuhartzaitza, sarrerako kategoria.
Destino osagarriaren maila: 30.
Osagarri espezifikoaren zenbatekoa: 29.402,24 euro urtean.
Hizkuntza eskakizuna: 4.
Derrigortasun data pasata al dago? Bai.



TOLOSAKO
UDALA

Lanpostuaren jabeak deialdi hau argitaratu eta ondorengo sei hilabeteetan zehar hartuko al du erretiroa? (3) Ez.

Merezimendu espezifikokoak (4): Estatu mailako gaikuntza duten funtzionarioei erreserbatuko lanpostuetan, azpieskala eta kategoria berean, Euskal Autonomi Erkidegoaren barruan: 0,5 puntu urteko (1,5 puntu gehienez).

Merezimendu espezifikokoak egiaztatzeko modua: Frogagiriak aurkeztuaz.

Lehiaketan parte hartzeko gutxieneko puntuak (5):

Oinarri espezifikoetan aurreikusten al da elkarrizketarik egitea? Bai.

Aurreikusten al da zenbatekorik elkarrizketaren ondorioz egin beharreko joan-
etorrien gastuak ordaintzeko? Ez.

Epaimahaiaren osaketa (6):

- Epaimahaiburua: Tolosako Udaleko idazkaria.

- Epaimahaikideak: Administrazio Orokorreko teknikaria, beste udal bateko gaikuntza nazionalako funtzionarioa, Gipuzkoako Foru Aldundiak izendatutako kide bat eta Euskal Autonomia Erkidegoak izendatutako kide bat.

- Idazkaria: Giza Baliabideetako teknikaria.



TOLOSAKO
UDALA

APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA

- Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, abenduaren 27ko 27/2013 Legeak (Toki Administrazioaren arrazionalizazioari eta iraunkortasunari buruzkoak) sartutako aldaketekin: 92 bis. artikulua eta bigarren xedapen gehigarria.
- Gaikuntza nazionaleko Toki Administrazioako funtzionarioen araubide juridikoa ezartzeari buruzko martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretua.
- Gaikuntza nazionaleko Toki Administrazioako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzko uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretua: 128/2018 Errege Dekretuaren bosgarren xedapen iragankorrari jarraikiz.
- Herri Administrazioetako Ministerioaren 1994ko abuztuaren 10eko (abuztuaren 12ko BOE), eta irailaren 8ko (irailaren 9ko BOE) aginduak. 128/2018 Errege Dekretuaren bosgarren xedapen iragankorrari jarraikiz.

OHARRAK

- (1) 1732/1994 Errege Dekretuaren 2. artikulua. Gauza bera 128/2018 Errege Dekretuaren 8., 13. eta 14. artikulua.
- (2) 1732/1994 Errege Dekretuaren 2. artikulua. Gauza bera 128/2018 Errege Dekretuaren 8., 13. eta 14. artikulua.
- (3) 1732/1994 Errege Dekretuaren 11. artikulua.
- (4) Merezimendu espezifikoen balorazioa: % 5. Hau da, 30etik 1,5 puntu (7/1985 Legearen bigarren xedapen gehigarria, 8. zenbakia).



TOLOSAKO
UDALA

1732/1994 Errege Dekretuaren 17.1 artikulua (gauza bera 128/2018 Errege Dekretuaren 34.1 artikulua) ezartzen du merezimendu espezifikotzat zer jotzen den. Halaber, 17.1 artikulua horri jarraikiz, merezimendu espezifikoko horiek lanpostu zerrendan jaso behar dira.

(5) Bakarrik lehen mailako idazkaritzak eta kontuhartzaitzak direnean: 1732/1994 Errege Dekretua, 14.2 artikulua.

(6) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina, 60. artikulua (zehaztasun gehiago: 128/2018 Errege Dekretua, 39. artikulua) .

“60. artikulua. Hautaketa-organoak.

- 1. Hautaketa-organoak kide anitzekoak izango dira, eta, horien osieran, kideen inpartzialtasun- eta profesionaltasun-printzipioak bete beharko dira; era berean, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko paritatea lortzeko ahalegina egin beharko da.*
- 2. Hautespen edo izendapen politikoko langileek, bitarteko funtzionarioek eta behin-behineko langileek ezin izango dute parte hartu hautaketa-organoetan.*
- 3. Hautaketa-organoetako kideak norberaren izenean arituko dira beti; ezin izango da inoiz inoren ordezkari edo inoren kontura izan hautaketa-organoetako partaide.”*



TOLOSAKO
UDALA

ERANSKINA

UDALEKO DIRUZAIN LANPOSTUA BETETZEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

2020ko lehiaketa arruntaren oinarri espezifikoak:

Toki entitatea: TOLOSAKO UDALA
Aurreko urteko abenduaren 31n zenbatekoa zen biztanleria, 2.000 biztanle baino gehiagokoa ala gutxiagokoa? Gehiagokoa.
Lanpostuaren izena (1): Diruzaina.
Kodea: 2.103.
Lanpostuaren azpieskala eta kategoria (2): Kontuhartzaitza- Diruzaintza
Destinoko osagarriaren maila: 24.
Osagarri espezifikoaren zenbatekoa: 19.503,54 euro urtean.
Hizkuntza eskakizuna: 4.
Derrigortasun data pasata al dago? Bai.
Lanpostuaren jabeak deialdi hau argitaratu eta ondorengo sei hilabeteetan zehar



TOLOSAKO
UDALA

hartuko al du erretiroa? (3) Ez.

Merezimendu espezifikoak (4): Estatu mailako gaikuntza duten funtzionarioei erreserbatuko lanpostuetan, azpieskala eta kategoria berean, Euskal Autonomi Erkidegoaren barruan: 0,5 puntu urteko (1,5 puntu gehienez).

Merezimendu espezifikoak egiaztatzeko modua: Frogiriak aurkeztuaz.

Lehiaketan parte hartzeko gutxieneko puntuak (5):

Oinarri espezifikoetan aurreikusten al da elkarrizketarik egitea? Bai.

**Aurreikusten al da zenbatekorik elkarrizketaren ondorioz egin beharreko joan-
etorrien gastuak ordaintzeko? Ez.**

Epaimahaiaren osaketa (6):

- **Epaimahaiburua:** Tolosako Udaleko idazkaria

- **Epaimahaikideak:** Administrazio Orokorreko teknikaria, beste udal bateko gaikuntza nazionalako funtzionarioa, Gipuzkoako Foru Aldundiak izendatutako kide bat eta Euskal Autonomia Erkidegoak izendatutako kide bat.

- **Idazkaria:** Giza Baliabideetako teknikaria.



TOLOSAKO
UDALA

APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA

- *Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, abenduaren 27ko 27/2013 Legeak (Toki Administrazioaren arrazionalizazioari eta iraunkortasunari buruzkoak) sartutako aldaketekin: 92 bis. artikulua eta bigarren xedapen gehigarria.*
- *Gaikuntza nazionaleko Toki Administrazioako funtzionarioen araubide juridikoa ezartzeari buruzko martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretua.*
- *Gaikuntza nazionaleko Toki Administrazioako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzko uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretua: 128/2018 Errege Dekretuaren bosgarren xedapen iragankorrari jarraikiz.*
- *Herri Administrazioetako Ministerioaren 1994ko abuztuaren 10eko (abuztuaren 12ko BOE), eta irailaren 8ko (irailaren 9ko BOE) aginduak. 128/2018 Errege Dekretuaren bosgarren xedapen iragankorrari jarraikiz.*

OHARRAK

- (1) *1732/1994 Errege Dekretuaren 2. artikulua. Gauza bera 128/2018 Errege Dekretuaren 8., 13. eta 14. artikulua.*
- (2) *1732/1994 Errege Dekretuaren 2. artikulua. Gauza bera 128/2018 Errege Dekretuaren 8., 13. eta 14. artikulua.*
- (3) *1732/1994 Errege Dekretuaren 11. artikulua.*
- (4) *Merezimendu espezifikoen balorazioa: %5. Hau da, 30tik 1,5 puntu (7/1985 Legearen bigarren xedapen gehigarria, 8. zenbakia).*



TOLOSAKO
UDALA

1732/1994 Errege Dekretuaren 17.1 artikulua (gauza bera 128/2018 Errege Dekretuaren 34.1 artikulua) ezartzen du merezimendu espezifikotzat zer jotzen den. Halaber, 17.1 artikulua horri jarraikiz, merezimendu espezifikoko horiek lanpostu zerrendan jaso behar dira.

(5) Bakarrik lehen mailako idazkaritzak eta kontuhartzaitzak direnean: 1732/1994 Errege Dekretua, 14.2 artikulua.

(6) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina, 60. artikulua (zehaztasun gehiago: 128/2018 Errege Dekretua, 39. artikulua) .

“60. artikulua. Hautaketa-organoak.

- 1. Hautaketa-organoak kide anitzekoak izango dira, eta, horien osieran, kideen inpartzialtasun- eta profesionaltasun-printzipioak bete beharko dira; era berean, emakumezkoen eta gizonzkoen arteko paritatea lortzeko ahalegina egin beharko da.*
- 2. Hautespen edo izendapen politikoko langileek, bitarteko funtzionarioek eta behin-behineko langileek ezin izango dute parte hartu hautaketa-organoetan.*
- 3. Hautaketa-organoetako kideak norberaren izenean arituko dira beti; ezin izango da inoiz inoren ordezkari edo inoren kontura izan hautaketa-organoetako partaide.”*